

Gu Adriano, Iker, Leire, Asier eta Ane gara, DULPP taldeko partaideak. Bigarren batxilergoko ikasleak gara Pio Baroja institutuan. Enpresa-administrazio eta kudeaketako ikasgaian, gure irakasle Idurrek erronka berezi bat proposatu zigun: proiektu bat sortzea, non enpresa bat asmatu beharko genuen, gizartean eragin positiboa izango zuen lan eginez.

Horretarako, “Sensair” sortu dugu. Porduktu hau, xurgagailu berritzaile bat da, sentsoare automatizatu bat du eta automatikoki arduratzen da etxeen garbiketa efizienteaz.

Imajinatu etxe bat bere kabuz garbitzen dena, benetan behar den unean. **Hauts-sentsore bati konektatutako xurgagailu robot adimendunak** garbiketa automatikoa beste maila batera eramaten du: ingurunean hautsa noiz pilatzen den detektatzen du, eta orduan bakarrik jarduten du.

Ez du errutinagatik garbitzen, **beharragatik baizik**. Sentsoreak hauts-maila handitzen dela antzematen duenean, robotak automatikoki martxan jartzen da, zorua garbi eta zainduta mantenduz, zuk ezer egin beharrik izan gabe. Horrela, denbora eta energia aurrezten dira, eta etxe garbiago eta osasungarriagoa bermatzen da. Teknologia adimenduna, zu pentsatu gabe jarduten duena.